

Gretak bazekien gizonekin zuen harremana aterkiekin zuenaren berdin-berdina zela. Haien beharra zuen, baina euria ari zuenean bakarrik oroitzen zen haiekin. Milaka euritako galdu zituen Gretak bere bizitzan. Izan ere, euria ari zuenean beti oroitzen zen etxetik guardasola hartzeaz, baina kasualitatez norabait sartu eta irteterako ateri bazen, abaxtuta uzten zuen beti aterkia. Gizonekin berdin-berdina geriatzen zitzaion.


Kale txukunak, jende ordenatua, laku ederrak, elurrezko panpinak... Eta eskale zarpailak, alkoholiko errukarriak, maitasun anemikoak, harreman izoztuak. Horra hor Suedia, Suediaren zati batzuk behintzat, Uxue Alberdik hautatuak eta moldatuak, ipuin liburu bat egiteko.

Kanpoko paisaiaren gainera barne paisaia nagusitzen da ordea: ez zaigu esaten elurra ari ote duen espaloien gainean, ez zaigu axola ere, baina bai elurra ari duela bihotz barneetan, maluten dotorezia guztiarekin, baita zuritasun horren hustasun lazarriarekin ere. Alde horretatik, suediarrez ez baizik nonahiko gizon-emakumez ari da egilea, idazkera eder, airos eta iradokitzaile batez.

Aulki bat elurretan

Uxue Alberdi

aulki bat elurretan Uxue Alberdi





MADONNA

Lauraren mundua berdea zen. *Mundu belar bat edo mundu oliba bat bezalakoa*, berak esaten zuenez.

Lurak, bere mundu berdean, gora begiratzeko joera zuen, baita horregatik lurtean zeuden gauzekin estropezu egin behar bazuen ere. Hori dute ona eroetxeek: gora begira ibil daitekeela bat eta estropezu egin eta berriz jaiki eta gora begira oinez jarraitu. Horregatik, Edvard anaia bisitan joaten zitzaionean izan ezik, Laurak gora begiratzen zuen beti. Edvard bisitan joaten zitzaionean, Lauraren begi-niniak anaiaren begirada baino pixka bat atzerago iltzatzen ziren, giza garunean ideiek egon behar duten leku horretan-edo. Huraxe izaten zen begirada sabaitik jaisten zuen une bakarra.

Bisitan joaten zitzaion guztietan, Laurak kantatu egiten zion Edvardi: bere munduaren kolorea kantatzen zion, haurrek biderketa-taula edo Europako ibaien zerrenda kantatzeko duten modu bitxi horretan. Begiak anaiaren begirada baino pixka bat barrurago sartu, eta irribarrez kantatzen zion: *Mundu sagar, mundu espina-ka, mundu esperantza, mundu martziano, mundu ma-*

*rihuana, mundu esmeralda, mundu meloi, mundu eroti-
ko, mundu udare, mundu mendi batean bizi naiz ni...*

Mundu berde batean bizi naiz ni...

Txarren-txarrenean, Edvardi ilusio pittin bat egiten zion arreba mundu berde batean imajinatzeak. *Badaude txarragoak*, pentsatzen zuen. Izan ere, pintorea zen Edvard eta bazekien zer bait koloreei buruz, adituek bere obra asko estimatu ez arren. *Hil eta gero agian...* esaten zion bere buruari, artistari geratzen zaion azken esperantzari helduz. Eta, *ai, esperantza!*—errepikatzen zuen gero ozenki eta bere buruari sarkasmoz hitz eginez—, *berdea omen da hori ere, Lauraren mundua bezala.*

Laura Munch. 27 urte. Eskizofrenia. Horrela zioen Cristianiako (egungo Oslo) Ekeberg mendian dagoen ospitale psikiatrikoko tiradera baten barruan, M letraren atalean, gordetako fitxak 1893. urtean. Eskizofrenia izan zen Lauraren mundua berdez pintatu zuena.

Edvardek arrebari bisita egiten zioneko ilunabarrak profitatzen zituen bere mihiseak pintatzeko. Psikiatrikoko terrazan, eroek eta zoro-haizeek ihes egitea galazten zuen barandaren kontra etzaten zuen mihisea, hartu pintzelak, eta pintatzen hasi aurretik begiak ixten zituen, inspirazioari zentzu pixka bat eman nahian.

Ez zen giro terraza hartan. 1893. urtean, Ekebergeko psikiatrikoaren alboan, hiltegi bat zegoen, eta han dago oraindik ere, leku berean. Oslora doanak ekialdeko muinora begiratu baino ez du eraikin grisa ikusteko. Edvardi, besoetako ile guztiak puntan jartzen zitzaizkion hiltegian kateekin lotzen zituzten animalien

garrasiak eta psikiatrikoan uhalez eta bortxa-atorrez lotutako eroen oihuak entzutean. Tinko saiatu arren, ezin zuen arrebaren eta hiltegiako behi baten artean ezberdintasun handirik topatu. Han zeuden, lotuta, heriotzaren zain, bakoitza bere mundu berdean. Hala ere, bortxa-atorrak erotzearen sinbolo egoki-egokiak iruditzen zitzaizkion Edvardi, *zer da, ba, erotzea*—pentsatzen zuen— *betiko norberaren buruari besarkatuta geratzea ez bada!*

Koadro ugari egin zituen Edvardek arrebaren psikiatrikoko terrazan. Urteetan, harrokeria edo nartzisismoztat jo izan dute kritiko askok Edvard Munchek bere buruaren ehun erretratutik gora egin izana, baina, egia esan, ez da hain joera arraroa koadroak psikiatriko bateko terrazan pintatzen zituela kontuan hartuta. Edvard eskizofreniaren beldur zen, mundu berdeen beldur, hiltegiako animalia guztien beldur. Margolanetan bere burua behin eta berriro pintatuz, bere nortasuna egiaztatzen zuen behin eta berriz. *Hori naiz ni*, esaten zion bere buruari pintzelkada bakoitzean.

Oihua margolana ere Ekebergeko terraza hartan egin zuen Edvardek, mihisea psikiatrikoko segurtasun-barandaren kontra jarrita. Barruan, eroek beren erotasuna besarkatzen zuten. Eta *ez, ez*, koadroan argi ikusten den baranda ez da, askok uste izan duten bezala, zubi bateko heldulekua: *Oihua* margolaneko baranda Ekebergeko psikiatrikoko segurtasun-hesia da. Urteetan horrenbeste lagun sorgindu dituen koadroa ez da besterik, psikiatriko bateko eta hiltegi bateko garrasien eta kateen hotsa baino. Eskizofrenia. Behi bat garrasika. Kateak kirrinka.

Ero bat uluka. Eta Edvard Munch psikiatrikoko terrazan pintzela eskuan.

Laura 1926an hil zen Ekeberg mendiko eroetxean bertan. Estuegi besarkatu zuen bere burua, eta bihotze-koak eman zion sabaira begira zegoela. Gau berdea izan zen 1926ko hura.

Gerora artista laudatua egin zen Edvard Munch ez zen gehiago mendi madarikatu hartara itzuli, baina, 1944an hil arte, bere buruaren erretratuak egiten jarraitu zuen. Badaezpada.

Amandak ordenagailua itzali eta zigarro bat piztu zuen. Väastra Torggatan-eko 8.ean elur-malutak leihoetan pilatzen ari ziren emeki-emeki, eta Amandak hipnotizaturik bezala jarraitzen zuen haien hegaldi biguna. Apartamentuko sarreran, oraindik kartoietan bilduta, Edvard Munchen *Madonna* koadroa zegoen hormaren kontra. Lau hilabete zerraman leku berean mugitu gabe. Lau hilabete ziren Amanda erretzen hasi zela. Lau hilabete, margolana Osloko eroetxetik Väastra Torggatan-eko 8.era bueltan bidali zutela. Lau hilabete, David psikiatrikotik desagertu zela. Elurra etengabe egin zuen lau hilabete.

Davidentzat onena omen zen. Amandari ez zitzaion ospitalea asko gustatzen, alboan zuen hiltegiagatik batez ere; gorputzaldi txarra jartzen zion hango behien marruna zorrotzak, baina adituek lekurik onena zela zioten, eta amore eman behar izan zuen azkenean.

Jaiki eta kafea prestatu zuen. Bere kazetari ibilbideko gailurra izango zen liburua. Nahikoa izan ziren lau hilabete. *Munch: behind The scream*, izugarritzko arrakasta izango zen.

Ez zuen dena hasieratik pentsatu. Kasualitatea izan zen, bizitzan ia dena bezala. Egia zen margolanak Daviden eta bien arteko pasioa berreskuratzeko lapurtu zituztela, eta David eroetxean sartu osteko lehenengo hilabeteetan benetan gaizki pasa zuela Amandak. Baina denborak... denborak ustez beren senean daudentzat egin ohi du aurrera, eta Amandari gero eta nekagarriago egiten zitzaion Karlstadetik Oslorainoko bidea, eta zer esanik ez psikiatrikotik hilero iristen zitzaion faktura. David itsuki maite zuen garaian ez zion diruari erreparatu, baina, bi lanpostutan aldi berean aritu arren, hilabete amaierara ezin iritsita zebilen beti, eta gero eta amorru handiagoz irekitzen zituen hilero postontzian uzten zizkioten gutun zuriak.

Bisita haietako batean hasi zen guztia, psikiatrikoko terrazan ilunabarrari begira zegoela. Bat-batean bihotz-taupadak azkartu zitzaizkion. Hasieran ez zen ohartu bere ezinegonaren arrazoiak, baina zeru gorri hura... fiordo urdin-ilun hura... ezin ziren beste inon egon: Munchen koadroko zeru bera zen! Bere apartamentuko oheburuan lau urte zeramatzan zeru berbera zen hura! Ez zion luze jo Edvard Munchen arreba bat, Laura, eskizofreniak jota ospitale psikiatriko hartantxe egon zela jakiteak. Nahikoa izan zuen pare bat galdera egitea ospitaleko harreran.

Egun hartan bertan erabaki zuen liburuarena. Idazle izatetik bizitzeko bere betiko ametsa betetzeko behar zuen bultzada zen, azkenean utziko zion agenda saileko artikuluko txatxuak idazteari. Baina momentuko zoriontasuna aurpegi-keinu garratz batek eten zion kolpetik. Noiz idatziko zuen liburu hura egunean hamabi orduz lanean aritzen bazen? Nondik atera behar zuen denbora? Gorrotoa sentitu zuen. Ekeberg mendiko psikiatrikoko terrazan ospitale barruan bortxa-atorra jantzita zegoen Davidekiko izugarritzko gorrotoa sentitu zuen bat-batean. Segundo erdiz, dirua lortzeko margolanak sal zitzakeela bururatu zitzaion. Baina hori zen hain juxtu beren lapurreta susmo guztietatik kanpo utzi zuena: ez zutela inongo negozio ahaleginik egin. Baina, orduan, nola demontre ordainduko zuen psikiatrikoko faktura? Ordaindu ezean, berriro etxera bidaliko zioten David, eta zer egin behar zuen berak etxean egun osoa oihuka pasatzen zuen ero batekin? Ez zen inola ere hasiera aproposena idazle bizitza arrakastatsurako. Begiak amorruez gorri, zeruko miztoei begira geratu zen Amanda.

Azkenean ez zen David izan etxera bidali ziotena. *Madonna* bidali zioten, David desagertu ostean ospitaleko bere gelan geratu zen gauza bakarra. Kartoizko kaxa batean bilduta iritsi zitzaion etxera, koadro onen kopia txarrak bidali ohi diren bezala.

Bere arrakastaren hasiera izango zen liburuari azken puntua ipini eta kafeari azken tragoa eman zion Amanda. Zorrak kitatzeko ordua zen lau hilabeteren ostean. *Madonna* koadroari kartoi zaharrak kendu eta berriak

jarri zizkion gainetik. Kartoi zaharretako bidaltzailearen helbideari, psikiatrikokoari, zenbaki bakarra aldatu behar izan zion kartoi berriaren gainean helbidea idatzi zuenean. Izan ere, eroetxearen alboan egon izan da beti hiltegia Ekeberg mendian.



